



Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma
Colección de Estadística y Estudios del Observatorio Vasco de la Cultura

Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren Agenteen Profilak

2013



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma
Colección de Estadística y Estudios del Observatorio Vasco de la Cultura

Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren Agenteen Profilak

2013

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2015eko abuztua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:
www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

AURKIBIDEA

Aurkezpena	5
I. Agenteen profilen analisisa	6
1.1. Arte eszenikoetako ekoizleak	7
1.2. Arte eszenikoetako programatzaileak	8
1.3. Argitaletxeak	10
1.4. Liburu-dendak	11
1.5. Musika-programatzaileak	13
1.6. Industria diskografikoa eta disko-saltokiak	16
1.7. Ikusizko arteetako erakusketa-gelak	17
1.8. Ikus-entzunezko ekoizleak	19
II. Taulen eranskina	20
2.1. Arte eszenikoetako ekoizleak	21
2.2. Arte eszenikoetako programatzaileak	23
2.3. Argitaletxeak	25
2.4. Liburu-dendak	26
2.5. Musika-programatzaileak	29
2.6. Disko-saltokiak	34
2.7. Ikusizko arteetako erakusketa-gelak	36
2.8. Ikus-entzunezko ekoizleak	38

AURKEZPENA

Arteei eta Kultura Industriei buruzko 2013ko Estatistikaren emaitzek hainbat analisi-maila egiteko aukera ematen dute. Horretarako, kontuan hartu da EAEko¹, kultura-esparruetan diharduten 606 agenterik buruzko informazioa. Hala, sektoreko txostenek sektore bakoitzari buruzko datuak jasotzen dituzte ahalik eta modu zehatzenean. Bestalde, Ikuspegiak txostenak interpretazioa egiteko aukera ematen digu agente guztien ustiapenetatik abiatuta, sektore guztiaren gaineko ikuspegi ardatz hartuta.

Kasu honetan, txostenean agenteen profila sakontzen da, euren diru-sarreraren mailaren arabera segmentuetan banatuta. Hala, agenteen tipologia bakoitzean, euren sektore-egituraren, sortzen duten enpleguari begira duten garrantziaren eta euren jardueraren gainean sakontzen da. Analisi honek sektore bakoitza karakterizatzeko informazioa gaineratu eta sektoreen arteko konparaketa-ikuspegiak ahalbidetzen du, 2009-2013 serie historikoari dagokion denbora-tartearen ikuspuntua aintzat hartuta, horien arteko antzekotasun eta ezberdintasunetatik abiatuta.

Txostenak bi zati ditu. Lehenengo zatian, 2013. urtean profil bakoitza karakterizatzen dituen ezaugarrien analisia egiten da. Horretarako, informazio grafikoa erabiltzen da, datuak errazago irakurtzeko.

Bigarren zatian, berriz, 2009-2013 epeko bilakaeraren taulen eranskina dago, serie historikoen xehetasunak aurkezteko asmoz.

¹ Kultura-sektore bakoitzeko estatistikaren berariazko argitalpenean erroldan sartzeko kontuan hartutako irizpide metodologikoak eta lan-eremuaren fitxa teknikoak deskribatzen dira.

1.1.

ARTE ESZENIKOETAKO EKOIZLEAK

2013an, arte eszenikoetako 67 konpainia sartu dira estatistikan: 59 antzerki-esparrukoak eta 8 dantza-esparrukoak.


Arte eszenikoetako EAeko hamar agente ekoizleetatik seik 100.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak izan dituzte 2013an eta konpainia txikiez osatutako sektorea da. Horietako % 19,4k 100.000 eta 250.000 euro arteko diru-sarrerak dituzte, eta gainerako % 17,9k diru-sarreretan 250.000 euroko kopurua gainditzen dute. Sektore osoan sortutako diru-sarreraren erdia baino gehiago (% 52,2) 7 konpainiatan bilduta dago.

Langile azpiegiturak ahulak dira eta dimentsio handieneko agenteek batez beste 5,9 langile izaten dituzte. Agenterik gehienek (% 62,2), baina, 1,3 langile izaten dituzte batez beste agenteko (ikusi emaitzak eranskinaren [14.irudian](#)).

Jardueraren ikuspuntutik eta proportzioari begiratuta, Euskadiko konpainiek ikuskizunak ekoizteko duten gaitasuna agente kopurua baino gehiago murriztu da, gainera: 2009 eta 2013 artean agenteen % 20,2ko galera izan, eta ekoizpena % 43 jaitsi zen. Jaitsiera hori bereziki esanguratsua da diru-sarrera txikiak dituzten konpainien kasuan, ekoizteko gaitasunean % 55,6ko galera izan baita (ikusi emaitzak eranskinaren [15.irudian](#)).

1. irudia.

Arte eszenikoetako ekoizleak, diru-sarreraren, gutzitakoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren, urteko lanaldi osoko langile baliokideen eta ekoizpenen arabera. 2013



1.2. ARTE ESZENIKOETAKO PROGRAMATZAILEAK


2013ko edizioan, arte eszenikoetako 112 programatzailei buruzko informazioa jaso da. Horietatik 79 aretoak dira, eta 33 jaialdiak.

Aretoen erdiak inguru (% 54,4) 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte. Bestalde, sei areto handik (1 milioi eurotik gorako diru-sarrerak) diru-sarrera guztien % 59,8 eta ikusleen % 54,7 biltzen dituzte.

Bilakaeraren ikuspuntutik, eta ikusleen arabera aretoen profilak aintzat hartuta, nabarmentzekoa da areagotu egin direla 5.000 eta 10.000 ikusle inguru erakartzen dituzten aretoak. 2013an, guztira, % 21,5era iritsi dira (eranskinaren [17.irudia](#)).

2. irudia.


Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, diru-sarreraren, guztizkoarekiko diru-sarrera tartearen eta ikusleen arabera. 2013



Diru-sarreraren arabera eginiko jaialdien banaketari dagokionez, nabarmen ikusten da diru-sarrerak beherakada izan dutela: 2013an soilik hiru jaialdik baino ez dituzte izan 250.000 eurotik gorako diru-sarrerak, eta % 57,6k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak izan dituzte (eranskinaren [18. irudiko](#) bilakaeratik ateratako datuak).

3. irudia.

Arte eszenikoetako jaialdiak, diru-sarrera tarteen eta guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2013



1.3.


ARGITALETXEAK

Estatistikan sartu diren 36 argitaletxeen diru-sarreraren araberako analisiak agerian uzten ditu sektoreak dituen zailtasunak; izan ere, argitaletxeak (2009. urtearekin alderatuta) diru-sarrerara txikiagoko tarteetarantz mugitu dira eta langile-kopuruaren batez bestekoa 2009az geroztik pixkanaka jaisten ari da. Gaur egun 3,2koa da kopurua (eranskinaren 19. irudiko bilakaeratik aterako datuak)

Handitu egin da dimentsio txikia duten argitaletxeek (% 38,9k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte, eta batez beste 0,8 langile dira) osatutako oinarria; bestalde, dimentsio handiko argitaletxeen taldea nabarmen murriztu da (% 19,4k 1.000.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzte, eta 8,1 langile batez beste).

4. irudia.

Argitaletxeak, liburu-salmentagatiko diru-sarreraren eta urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera. 2013



1.4.


LIBURU-DENDAK

Estatistika-eragiketaren 2013ko edizioan sartu diren 96 liburu-dendetatik, 26 kateetako kide dira eta 70 liburu-denda independenteetakoak. Bereizketa horren bidez egiazta daiteke kateetako zati diren saltokiek sektoreko krisiari eta eraldaketei aurre egiteko gaitasun handiagoa dutela independenteek baino. Hala, 2009tik aurrera, sektoreko agenteen galerak eragina izan du bereziki saltoki independenteetan. Nolanahi ere, azpimarratu behar da 2013ko datuetan ohartarazi dela kateetako kide diren liburu-dendak garrantzia galtzen hasi direla, bai liburu-salmentagatiko diru-sarrerari dagokienez, bai horiek dakarten enpleguari dagokienez: liburu-salmentagatiko diru-sarrerak % 58,3koak izan ziren, eta enplegua % 45,2koa (eranskinaren 20. irudian zehaztu dira emaitzak).

Diru-sarrera mailaren arabera saillapenak elkarri loturiko bi ondorio uzten ditu agerian: krisiak hasiera batean liburu-denda txikitzen izan zuen eragina (hainbat itxiera ekarri zituen), eta, ondoren, diru-sarreraren jaitsierak dimentsio handiagoko saltokietan ere izan zuen eragina. 2011 eta 2013 artean, milioi batetik gorako diru-sarrerak zituzten liburu-denden kopurua 16tik 12ra murriztu zen, eta, ondorioz, garrantzia galdu zuten liburu-salmentagatiko diru-sarrerari dagokienez: guztizkoaren % 56,4tik % 49,9ra igaro ziren (ikusitu datuak eranskinaren 21. irudian). Liburu-denda horien % 83,3 kateetakoak dira.


5. irudia.

Liburu-dendak, tipologiaren, guztizkoaren diru-sarreraren ehunekoaren eta urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera. 2013



6. irudia.

Liburu-dendak, diru-sarreren eta liburu-salmentagatiko diru-sarreren arabera. 2013



1.5.

MUSIKA-PROGRAMATZAILEAK


Azterketan sartu dira, era berean, zuzeneko musika programatzen diharduten 132 agenteak. Horien artean honako hauek dira: 70 programatzaile publiko, 29 sustatzaile pribatu, 23 kontzertu-areto, 3 orkestra eta 7 musika- eta txistulari-banda.

Programatzaile publikoak kontuan hartzen baditugu, bi errealitate ikusten dira: diru-sarrera guztien % 45 lau agenteren esku dago (agenteen % 5,7); hamar programatzaile publikoetatik sei inguruk 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte (% 58,6), baina guzti horien artean, guztizkoarekiko % 12,7ko diru-sarrera osatzen dute.

Ikusleen ehunekoari dagokionez, zazpi programatzaile publiko handitan (agenteen % 10) biltzen da EAEn 2013an programatzaile publikoek programatutako kontzertuetara joan diren ikusleen % 62,8a (eranskinaren [24. irudia](#)).

7. irudia.


Programatzaile publikoak, diru-sarrera tarteetan, guztizkoarekiko diru-sarreraren eta ikusleen arabera. 2013



Sustatzaile pribatuek sortutako guztizko diru-sarreraren % 92,2 bederatzia agentek sortua da. 2011. urtearekin alderatuta ikusten da igoera izan dela 100.000 eta 500.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituztenen artean. Hala, sektoreak 2009an zuen antzeko egoerara itzuli gara (ikusi eranskinaren [25. irudiaren](#) bilakaera datuak).

8. irudia.


Sustatzaile pribatuak, diru-sarreraren eta guztizkoaren diru-sarreraren ehunekoaren arabera.
2013



Diru-sarreraren arabera eginiko kontzertu-aretoen sailkapenak agerian uzten du errealitate egonkor samarra dela aurreko edizioekin alderatuta. Edonola ere, nabarmentzekoa da pisua galtzen ari direla 250.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten aretoek izandako diru-sarrera eta ikusle-kopuru osoarekin alderatuta: aurreko edizioetan guztizko diru-sarrera % 74 ingurukoa izan zen, eta 2013an, % 60koa; ikusle kopurua ere aurreko edizioetan % 52koa izan zen eta 2013an % 45koa (emaitza xehatuak eranskinaren [26. irudian](#)).

9. irudia.

Kontzertu-aretoak, diru-sarreraren eta guztizkoarekiko ikusleen ehunekoen arabera. 2013



EAEko 23 kontzertu-areto erdiek (% 52,2) 2013an 5.000 ikusle baino gutxiago izan dituzte. Bestalde, aretoen % 30,4k hamarretik zazpi ikusle erakarri dituzte (eranskinaren [27. irudia](#)).


1.6. INDUSTRIA DISKOGRAFIKOA ETA DISKO-SALTOKIAK

2013an aztertutako EAEko diskoaren industriaren baitan, 5 diskoetxe eta 21 disko-saltoki dira. Datuen babesa dela eta, ez dago diskoetxeei buruzko datu zehatzik ematerik.

Itxi dituzten bost disko-saltokietatik hiru independenteak ziren; beraz, agenteen esparruan zuten garrantzia zertxobait murriztu egin da kateetako zati diren disko-saltokiekin alderatuta (% 61,9). Azken profil horretan sartzen da guztizko diru-sarreraren % 75,5 eta enpleguaren % 67,8.

10. irudia.

Disko-saltokiak, diru-sarreraren, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2013



1.7.

IKUSIZKO ARTEETAKO GALERIAK ETA ERAKUSKETA-ARETOAK


Estatistikan ikusizko arteetako ekoizleak barne badaude ere, edizio honetan hiru agente baino ez dira. Horrenbestez, ez dira analisi honetan sartu, alabaina 21 arte-galeria eta 38 erakusketa-aretoen aztertu dira.

Salmentetako diru-sarrera kopuruaren sailkapenak erakusten du galerien sektorean saltoki txikiak direla nagusi: galerien % 76,2k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte, eta enpleguaren % 63,1. Baina negozioa gainontzeko galerien % 23,8an biltzen da; hau da, salmentek diru-sarreraren % 67,1 sortzen dute.

Erakusketa-aretoen sarea areto txikiz osatuta dago (100.000 eurotik beherako aurrekontua). Mota honetako agenteak % 81,6 dira, eta areto kopuru txiki batek (zazpi agente) diru-sarreraren % 87,5 biltzen dute. Aurreko edizioekin alderatuta, diru-sarrera handiagoak dituzten agenteen pisua areagotu egin da; diru-sarrera txikiagoak dituzten agenteen kopurua, berriz, jaitsi egin da (ikusita emaitza zehatzak eranskinaren [31. irudian](#)).


11. irudia.

Galeriak, diru-sarrera tartean, guztizkoarekiko diru-sarreraren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2013



12. irudia.

Ikusizko arteetako erakusketa-gelak, diru-sarrera tartean, guztizkoarekiko diru-sarreren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2013



1.8. IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA


Jarraian adierazten diren datuak 2013ko edizioan parte izan duten ikus-entzunezko 74 ekoizpen-etxeri buruzkoak dira. ETB analisi honetatik kanpo geratu da, sektorearen baitan duen garrantziagatik eta berezitasunagatik.

Nabarmenezkoa da agenteen % 13,5ek milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak dituztela, diru-sarreraren % 58,9 sortzen dutela eta enpleguaren % 56,4 biltzen dutela. Ehuneko hori tamaina handiko ekoizpen-etxeei dagokie, haien diru-sarrerak eta langile kopuruaren batez bestekoak (32,9) adierazten duten moduan.

Aurreko edizioekin alderatuta sektorea uzkuertzen ari dela ikusten da, bai agente-kopuruari dagokionez, bai diru-sarrerak sortzeko gaitasunari dagokionez. Jaitsi egin da 500.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten ekoizpen-etxe kopurua. 2009an guztizkoaren % 36,6koa zen, eta 2013an, hamar puntu jaitsi dira, hau da, guztizkoaren % 27koa da (ikusita emaitza zehatzak eranskinaren [32. irudian](#)).

13. irudia

Ekoizpen-etxeak, diru-sarrera tarteetan, guztizkoarekiko diru-sarreraren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2013



2.1.

ARTE ESZENIKOETAKO EKOIZLEAK

14.irudia. Arte eszenikoetako ekoizleak, diru-sarreraren, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2013

	2009					2011					2013				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
500.000 € baino gehiago	5	6,0	38,5	12,7	6,0	5	6,3	41,1	16,0	6,0	7	10,4	52,2	24,0	5,9
250.001 - 500.000 €	7	8,3	19,5	14,2	4,8	8	10,0	22,5	22,7	5,3	5	7,5	13,4	13,6	4,7
100.000 - 250.000 €	18	21,4	22,9	33,2	4,3	15	18,8	21,2	31,9	4,0	13	19,4	20,5	31,8	4,2
100.000 € baino gutxiago	54	64,3	19,1	39,9	1,7	52	65,0	15,1	29,4	1,1	42	62,7	13,9	30,6	1,3
Guztira	84	100,0	100,0	100,0	2,8	80	100,0	100,0	100,0	2,3	67	100,0	100,0	100,0	2,6

Figura 15. Arte eszenikoetako ekoizleak, diru-sarreraren eta egindako produkzioen arabera. 2009-2013

	2009				2011				2013			
	Agenteak		Egindako produkzioak		Agenteak		Egindako produkzioak		Agenteak		Egindako produkzioak	
	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
500.000 € baino gehiago	5	6,0	22	13,0	5	6,3	17	15,3	7	10,4	18	18,7
250.001 - 500.000 €	7	8,3	9	5,3	8	10,0	13	11,7	5	7,5	9	9,3
100.000 - 250.000 €	18	21,4	31	18,3	15	18,8	13	11,7	13	19,4	22	22,7
100.000 € baino gutxiago	54	64,3	107	63,3	52	65,0	68	61,3	42	62,7	47	49,3
Guztira	84	100,0	169	100,0	80	100,0	111	100,0	67	100,0	96	100,0

2.2.

ARTE ESZENIKOETAKO PROGRAMATZAILEAK

16. irudia. Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, diru-sarreren, guztizkoarekiko diru-sarrera tarteen eta ikusleen arabera. 2009-2013

	2009				2011				2013			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Berez.	Agenteak		Diru-sarrerak	Berez.	Agenteak		Diru-sarrerak	Berez.
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	4	5,6	60,3	52,6	5	6,6	65,4	55,3	6	7,6	59,8	54,7
250.001 - 1.000.000 €	6	8,4	13,6	13,6	3	3,9	5,1	4,8	4	5,0	9,3	7,4
100.000 - 250.000 €	25	35,2	16,6	21,1	19	25,0	14,9	16,2	26	32,9	19,4	20,1
100.000 € baino gutxiago	36	50,7	9,5	12,7	49	64,5	14,6	23,8	43	54,4	11,5	17,8
Guztira	71	100,0	100,0	100,0	76	100,0	100,0	100,0	79	100,0	100,0	100,0

17. irudia. Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, bertaratutako ikusle-tarteen arabera. 2009-2013

	2009		2011		2013	
	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
30.000 ikusle baino gehiago	5	7,0	5	6,6	6	7,6
10.001 - 30.000 ikusle	3	4,2	5	6,6	5	6,3
5.000 - 10.000 ikusle	12	16,9	10	13,2	17	21,5
5.000 ikusle baino gutxiago	51	71,8	56	73,7	51	64,6
Guztira	71	100	76	100,0	79	100,0

18. irudia. Arte eszenikoetako jaialdiak, diru-sarrera tarteen eta guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2009-2013

	2009			2011			2013		
	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
250.000 € baino gehiago	7	20,0	81,5	8	24,2	85,0	3	9,1	77,5
100.000 - 250.000 €	11	31,4	13,1	10	30,3	9,8	11	33,3	14,5
100.000 € baino gutxiago	17	48,6	5,4	15	45,5	5,2	19	57,6	7,9
Guztira	35	100,0	100,0	33	100,0	100,0	33	100,0	100,0

2.3.

ARGITALETXEAK

19. irudia. Argitaletxeak, liburu-salmentagatiko diru-sarreraren eta urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera. 2009-2013

	2009					2011					2013				
	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
1.000.000 € baino gehiago	11	28,9	82,3	64,6	11,6	12	31,6	86,7	69,5	9,7	7	19,4	76,5	49,2	8,1
500.001 - 1.000.000 €	6	15,8	12,0	15,5	5,1	3	7,9	8,0	6,8	3,8	5	13,9	15,4	21,7	5,0
250.001 - 500.000 €	3	7,9	2,7	5,3	3,5	4	10,5	2,7	7,1	3,0	3	8,3	3,9	8,1	3,1
100.000 - 250.000 €	14	36,8	2,8	13,2	1,9	6	15,8	1,2	4,9	1,4	7	19,4	2,3	11,9	2,0
100.000 € baino gutxiago	4	10,5	0,3	1,4	0,7	13	34,2	1,5	11,7	1,5	14	38,9	1,9	9,2	0,8
Guztira	38	100,0	100,0	100,0	5,2	38	100,0	100,0	100,0	4,4	36	100,0	100,0	100,0	3,2

2.4.

LIBURU-DENDAK

20. irudia. Liburu-dendak, tipologiaren, guztizkoaren diru-sarreraren ehunekoaren eta urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera. 2009-2013

	2009					2011					2013				
	Agenteak		Liburu-salmenta-gatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu-salmenta-gatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu-salmenta-gatiko diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
Kateetako zati diren liburu-dendak	27	22,5	60,7	49,7	5,7	27	27,0	63,2	52,2	6,0	26	27,1	58,3	45,2	4,6
Liburu-denda independenteak	93	77,5	39,3	50,3	2,1	73	73,0	36,8	47,8	2,1	70	72,9	41,7	54,8	2,
Guztira	120	100,0	100,0	100,0	3,1	100	100,0	100,0	100,0	3,1	96	100,0	100,0	100,0	2,7

21. irudia. Liburu-dendak, diru-sarreraren eta liburu-salmentagatiko diru-sarreraren arabera. 2009-2013

	2009			2011			2013		
	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
1.000.000 € baino gehiago	15	12,5	53,5	16	16,0	56,4	12	12,5	49,9
500.001 - 1.000.000 €	12	10,0	14,8	13	13,0	16,9	12	12,5	17,8
250.001 - 500.000 €	29	24,2	16,5	29	29,0	16,1	27	28,1	18,1
250.000 € baino gutxiago	64	53,3	15,2	42	42,0	10,7	45	46,9	14,2
Guztira	120	100,0	100,0	100	100,0	100,0	96	100,0	100,0

22. irudia. Liburu-dendak, diru-sarreraren eta liburu-denden tipologiaren arabera. 2009-2013

	2009				2011				2013			
	Agenteak		Kateetako kide diren liburu-dendak	Liburu-denda independenteak	Agenteak		Kateetako kide diren liburu-dendak	Liburu-denda independenteak	Agenteak		Kateetako kide diren liburu-dendak	Liburu-denda independenteak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	15	12,5	86,7	13,3	16	16,0	81,3	18,8	12	12,5	83,3	16,7
500.001 - 1.000.000 €	12	10,0	50,0	50,0	13	13,0	30,8	69,2	12	12,5	25,0	75,0
250.001 - 500.000 €	29	24,2	17,2	82,8	29	29,0	27,6	72,4	27	28,1	33,3	66,7
250.000 € baino gutxiago	64	53,3	0,0	100,0	42	42,0	4,8	95,2	45	46,9	8,9	91,1
Guztira	120	100,0	20,0	80,0	100	100,0	27,6	72,4	96	100,0	27,1	72,9

2.5.

MUSIKA-PROGRAMATZAILEAK

23. irudia. Programatzaile publikoak, diru-sarrera tarteen, guztizkoarekiko diru-sarreraren eta ikusleen arabera. 2009-2013

	2009				2011				2013			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusle	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusle	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusle
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	5	6,8	54,9	25,0	6	8,8	60,0	41,6	4	5,7	45,0	26,6
250.001 - 1.000.000 €	7	9,5	16,5	50,6	4	5,9	10,2	19,9	7	10,0	19,2	38,8
100.000 - 250.000 €	21	28,4	16,7	14,2	22	32,4	18,8	26,8	18	25,7	23,1	21,4
100.000 € baino gutxiago	41	55,4	11,9	10,3	36	52,9	11,0	11,7	41	58,6	12,7	13,2
Guztira	74	100,0	100,0	100,0	68	100,0	100,0	100,0	70	100,0	100,0	100,0

24. irudia. Programatzaile publikoak, ikusleen arabera eta guztizkoarekiko ikusleen ehunekoaren arabera. 2009-2013

	2009			2011			2013		
	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
100.000 ikusle baino gehiago	5	6,8	58,2	4	5,9	42,4	3	4,3	42,4
50.001 - 100.000 ikusle	3	4,1	12,0	5	7,4	24,0	4	5,7	20,4
10.001 - 50.000 ikusle	13	17,6	15,9	18	26,5	22,3	19	27,1	25,3
5.000 - 10.000 ikusle	15	20,3	7,9	10	14,7	5,0	10	14,3	5,0
5.000 ikusle baino gutxiago	38	51,4	5,9	31	45,6	6,3	34	48,6	6,9
Guztira	74	100,0	100,0	68	100,0	100,0	70	100,0	100,0

25. irudia. Sustatzaile pribatuak, diru-sarreraren eta guztizkoaren diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2009-2013

	2009			2011			2013		
	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak
	Maizt.	%	Maizt.	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
1.000.000 € baino gehiago	4	13,8	71,1	5	17,2	74,5	3	10,3	72,0
100.000 - 1.000.000 €	16	55,1	27,4	9	31,1	21,8	15	51,8	25,1
100.000 € baino gutxiago	9	31,0	1,5	15	51,7	3,7	11	37,9	2,9
Guztira	29	100,0	100,0	29	100,0	100,0	29	100,0	100,0

26. irudia. Kontzertu-aretoak, diru-sarreraren eta guztizkoarekiko ikusleen ehunekoen arabera. 2009-2013

	2009				2011				2013			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
250.000 € baino gehiago	5	20,8	74,0	52,0	6	24,0	74,7	52,4	5	21,7	60,2	44,9
100.000 - 250.000 €	7	29,2	21,5	29,0	5	20,0	18,0	20,8	7	30,4	32,1	33,7
100.000 € baino gutxiago	12	50,0	4,5	19,0	14	56,0	7,3	26,8	11	47,8	7,7	21,4
Guztira	24	100,0	100,0	100,0	25	100,0	100,0	100,0	23	100,0	100,0	100,0

27. irudia. Kontzertu-aretoak, ikusle-tarteen eta guztizkoarekiko ikusleen ehunekoen arabera. 2009-2013

	2009			2011			2013		
	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
10.000 ikusle baino gehiago	4	16,7	54,0	9	36,0	70,3	7	30,4	67,6
5.000 - 10.000 ikusle	11	45,8	34,0	5	20,0	13,4	4	17,4	16,8
5.000 ikusle baino gutxiago	9	37,5	12,0	11	44,0	16,2	12	52,2	15,6
Guztira	24	100,0	100,0	25	100,0	100,0	23	100,0	100,0

2.6.

DISKO-SALTOKIAK

28. irudia. Disko-saltokiak, diru-sarreraren, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2013

	2009					2011					2013				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
Kateetako kide diren saltokiak	15	57,7	85,9	65,3	1,7	15	57,7	77,4	68,1	1,6	13	61,9	75,5	67,8	1,5
Saltoki independenteak	11	42,3	14,1	34,7	1,3	11	42,3	22,6	31,9	1,0	8	38,1	24,5	32,2	1,2
Guztira	26	100,0	100,0	100,0	1,5	26	100,0	100,0	100,0	1,3	21	100,0	100,0	100,0	1,4

29. irudia. Disko-saltokiak, diru-sarrera tarteen eta saltoki-tipologiaren arabera. 2009-2013

	2009				2011				2013			
	Agenteak		Kateetako kide direnak	Independenteak	Agenteak		Kateetako kide direnak	Independenteak	Agenteak		Kateetako kide direnak	Independenteak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
100.000 € baino gehiago	12	46,2	75,0	25,0	10	38,5	70,0	30,0	8	38,1	75,0	25,0
100.000 € baino gutxiago	14	53,8	42,9	57,1	16	61,5	50,0	50,0	13	61,9	53,8	46,2
Guztira	26	100,0	57,7	42,3	26	100,0	57,7	42,3	21	100,0	61,9	38,1

2.7.

IKUSIZKO ARTEETAKO GALERIAK ETA ERAKUSKETA-ARETOAK

30. irudia. Galeriak, diru-sarrera tarteetan, guztizkoarekiko diru-sarreraren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera) 2009-2013

	2009					2011					2013				
	Agenteak		Salmen-tengatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Salmen-tengatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Salmen-tengatiko diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%		%	%	Batez bestekoa	Maizt.		%	%	%	Batez bestekoa		Maizt.	%
100.000 € baino gehiago	5	19,2	49,8	29,6	2,6	6	23,1	68,2	36,6	2,3	5	23,8	67,1	36,9	2,3
100.000 € baino gutxiago	21	80,8	50,2	70,4	1,5	20	76,9	31,8	63,4	1,2	16	76,2	32,9	63,1	1,2
Guztira	26	100,0	100,0	100,0	1,7	26	100,0	100,0	100,0	1,4	21	100,0	100,0	100,0	1,5

31. irudia. Ikusizko arteen erakusketa-aretoak, diru-sarrera tarteen, guztizkoarekiko diru-sarreraren eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2013

	2009					2011					2013				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
100.000 € baino gehiago	9	17,7	74,6	58,6	0,8	11	21,6	84,2	62,2	2,8	7	18,4	87,5	55,2	2,8
100.000 € baino gutxiago	42	82,4	25,4	41,4	1,6	40	78,4	15,8	37,7	0,5	31	81,6	12,5	44,8	0,5
Guztira	51	100,0	100,0	100,0	1,0	51	100,0	100,0	100,0	1,0	38	100,0	100,0	100,0	0,9

2.8.

IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA

32. irudia. Ekoizpen-etxeak, diru-sarrera tarte, guztizkoarekiko diru-sarrera eta langileen (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) arabera. 2009-2013

	2009					2011					2013				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
1.000.000 € baino gehiago	13	15,9	68,4	57,2	36,1	15	19,2	67,3	60,9	29,2	10	13,5	58,9	56,4	32,9
500.001 - 1.000.000 €	17	20,7	16,2	18,7	9,0	13	16,7	16,0	14,7	8,1	10	13,5	18,1	14,3	8,4
250.001 - 500.000 €	17	20,7	9,2	9,8	4,7	22	28,2	12,2	15,9	5,2	12	16,2	10,3	11,9	5,8
100.000 - 250.000 €	20	24,4	5,1	10,1	4,1	10	12,8	3,0	4,0	2,9	22	29,7	10,3	11,9	3,2
100.000 € baino gutxiago	15	18,3	1,2	4,2	2,3	18	23,1	1,5	4,5	1,8	20	27,0	2,5	5,6	1,6
Guztira	82	100,0	100,0	100,0	10,0	78	100,0	100,0	100,0	9,2	74	100,0	100,0	100,0	7,9

Oharra: ETBko datuak ez dira kontuan hartu taula honetan.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



www.euskadi.eus/kulturabehatokia